

## DIRU ITURRIAK

Gure proiektuaren ideia martxan jartzeko, ez dugu babeslerik bilatuko ezta beste enpresa batzuei laguntzarik eskatuko ere, bankuari **20.000€ko mailegua** eskatuko diogu, hau da, hasierako diruaren %100 bankutik lortuko dugu. **Hilabetero 1.000€** ordainduko ditugu mailegu hau itzultzeko. Hortaz, 20 hilabete barru mailegua guztiz ordaindua izango dugu, interesak eta komisioak kontuan hartu gabe.

Proiektua behin martxan jarrita, mailegua ez ezik, gure irabazien parte bat materialak erosteko eta langileei ordaintzeko inbertituko da.

Hilabetero ordaindu beharko dugun maileguaz, materialaz eta pabilioiaren alokairuaz gain, ehuneko zehatzez adierazita edukiko ditugu langileen soldatak, gure soldatak eta **erreserbetan gordeko dugun dirua**, etorkizuneko arazoak saihesteko.

Hauek izango dira ehunekoak mailegua, materialak eta pabilioiaren alokairua kenduta:

- 10 langileen soldata %30 (1.924,5€ bakoitzak).
- 5 buruen soldata %40 (5.132€ bakoitzak).
- Bestelakoak %30 (19.245€ argiarentzat, urarentzat, gizarte segurantzarako eta badaezpada gordetzeko).